

05-05-2024

- *AIZKORRI mendilerro malkartsuak Euskadiko gailurrik altuenak ditu, eta Aloña mendilerroaren luzapena da. Tontor hauek historia, mitologia eta erlijiotasuna batzen dituzte, eta, beraz, oso ezagunak eta garrantzitsuak dira euskal mendizale ororentzat. Aketegiko ekialdeko partean Mariren kobazuloa dago, euskal mitologian ospetsua. Ibilbidea Arantzazun hasita, leku sinboliko hau ezagutzeko aukera izango dugu.*
- *Oraingo honetan, Gailurra Txiki taldearekin bat egingo dugu Urbiara igotzeko, bertan elkarrekin hartuko dugu hamaiketakoa, eta gero talde bakoitzak bere ibilbidea jarraituko du.*

Arantzazun (755) Santutegira bisita labur bat egitea proposatzen dugu ibilbidea hasteko, Gipuzkoako enklabe honen esanahi erlijioso, artistiko eta kulturala eta kokapen aparta ulertzeko. Ibilbidea Urbiarako ohiko bideari jarraituz hasiko dugu, hego-ekialderantz, **Elorrolako** lepora heldu arte (1161) (1:30), eta handik gutxira **Urbiako** baselizara eta aterpera iritsiko gara (1130) (1:40)(4.6km).

Gure ibilbidea ekialderantz doa, Aizkorriko harresi karstikorantz, bide nabarmena jarraituz. Laster, **Arbelarreko** txabolen ondotik igaroko gara, **Arbelaitz** gailurraren azpitik. Mendi-bide harritsu batetik igoko gara Aizkorrirantz, eta gandorretik gertu (1450) ezkerredera egingo dugu iparralderantz tontorrera igotzeko. **Aketegi (1551)** (3:00) Euskadiko tontorrik altuena.

Ertzatik hegoalderantz, seinale geodesikoa duen puntatik pasako gara, **Aketegi erpina** (1544), eta gero, bidezidor harritsuari jarraituz, **Aizkorriko** tontorrera iritsiko gara (1528) (3:25)(8:33km). Mendilerroaren gailurrik jendetsuena da hau, Santo Kristoren ermita eta Federazioak eraikitiko lehen babesleku irekia duena (1933. urtea).

Hegoalderantz jarraituko dugu gailurretik (3:32) eta laster eskuinera joko dugu (M) . Jaitsiera oso aldapsua da, pagadi ederretan, artzain txabolak dituen **Oltzako** zelaiara heldu arte (4:18) (10.3 km). Zelai hori zeharkatu ondoren, eskuinera egingo dugu (IM), **Urdabidegoikoa** bidea hartzeko, pagadi zoragarria zeharkatuz Ollantzuko txabolarrera iritsiko gara, eta bertatik berriz **Urbiako** ostatura. (12.9 km)

Handik, ipar-mendebalderantz eta Enaitz mendiaren gailurra eskerrean utzita, PR-GI-3006 bidezidorrari jarraituko diogu, **Iparbakoitz** leporaino (1246). Puntu honetan, ordua eta gogoaren arabera, markatutako bidezidorretik jarraitu ahal dugu, edo nahi izanez gero, iparralderantz desbideratu **Artzanburu** tontorrera igotzeko (1335) (+0:35). Hiru haran menderatzen dituen gailurra da hau, Aizkorri mendilerroaren ekialdeko partean, eta igoeran Artzanburuko **trikuaharria** ikusteko aukera dugu. Barandiaranek aurkitu zuen trikuaharria 1917. urtean, eta inguru horrek duen garrantzi megalitiko-erlijiosoaren erakusgarri da, baita Neolitikotik aurrera artzaintzan izan duen etengabeko okupazioaren erakusgarri ere.

Bidetik Arabako isurialdearen ikuspegi ederra dago, baita Aloña mendilerroarena ere. Denbora gutxian, larreetatik jaitsiko gara **Eskistako** aterperaino, teilatu borobildua duena (1111) (6:10). Han, bide markatuarekin bat egingo dugu (GR 120 / GR 34 / PR-GI3006), eta pistatik joango gara **Mallarrateko** leporaino (1055). Bertatik, pista utzita, ezkerretara joko dugu. GR120 GR 34 ibilbidea jarraitu besterik ez dugu egin behar, eta **Duruko** txaboletatik, bide aladapatsu batetik jaitsiko gara Arantzazura (19km)(7:10).



EGURALDI IRAGARPENA

Egunero gaurkoratzen da

- [METEOBLUE](#)

Compártelo:

- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on X \(Opens in new window\)](#)
- [Click to email a link to a friend \(Opens in new window\)](#)

DATU TEKNIKOAK

Jarduera mota Egun bakarreko irteera zirkularra oinez.

Kokapena

Metatutako desnibela +1150

Luzera 19 km

Jardueraren iraupenaren aurreikuspena

Elkartzeko tokia eta ordua

8:30 Gailurra

9:45 Arantzazuko santutegiko sarreran

Ibilbidearen hasiera eta bukaera

Arantzazuko santutegia (sarrera) 10:00etan.

Irteerarako izena emateko azken eguna

04-05-2024

Jakin beharreko kontu teknikoak

Prestakuntza fisiko beharrezkoa

Material tekniko beharrezkoa

Sasoi honetarako oinetako eta arropa egokiak. Makilak. Frontala. Ura

Bestelako oharrak

Argibide gehiago

Rober 656764zero81

